

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2518

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errolda berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Bada, aipatu datu ofizialen azterketatik ondorioztatzen da Vitoria-Gasteizko farmazia-barrutian farmazia-bulego bat jartzea bidezkoa dela.

Hala ere, une honetan ezin da iragartzen den bidezkoitasuneko farmazia-bulegoaren kokapen posiblea zehaztu, farmazia-eskualde berean farmazia-bulego berri bat jartzeko 2016ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez hasitako beste prozedura bat burutzearen menpe baitago aipatu kokapena.

Ondorioz, une honetan farmazia-bulego berria sortzeko deialdia burutzeak ekarriko luke farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 1.3 artikuluan adierazitakoa ez betetzea, non berariaz adierazi behar baita haren kokaleku posiblea zein den.

Hori dela eta, kokapen posibleari buruzko zalantzak argitu arte deialdirik ez egitea zuzenagoa da, eta farmazia-bulego berriaren titulartasuna lortu nahi duten interesdunentzat ere mesedegarriagoa da.

Hori guztia kontuan hartuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko farmazia-barrutian farmazia-bulego berri bat jartzea bidezkoa dela iragartzea.

Bigarrena.– Aipatu farmazia-bulegoa sortzeko deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratutako iragarkiaren bidez egingo da, aipatu 11/1994 Legearen 13. artikuluko irizpideen arabera bere kokapen posiblea jakin bezain laster.

Hirugarrena.– Aipatu iragarkiak, halaber, aipatu farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea derrigorrez aipatuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 30a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.